


Artizarreko azalaren eta atmosferaren arteko elkarrekintza agerian jarri dute



Artizarren atmosfera, Akatsukiren UVI-kameraren bitartez. ARG.: JAXA/ISAS/DARTS/Damia Bouic.

Artizarren atmosferan iaz Akatsuki misioak behatutako hodei-egitura misterioitsu baten izaera argitu dute. Izan ere, hodei-egitura hori egonkor azaltzen zen azalarekiko, eta hori harrigarria zen, Artizarren atmosferak supererrotazioa duelako. Hain zuzen, planetak 243 egun behar ditu bere buruari bira bat emateko, eta, atmosferak, berri, 4 egun baino ez. Bada, [argitaratu berri duten ikerketaren arabera](#), planetaren topografian dago gakoa: Artizarren gainazal harritsuaren dagoen mendien eta atmosferaren arteko elkarrekintzaren ondorioz sortzen da hodei-egitura egonkor hori.

[Itziar Garate Lopez](#) Artizarren atmosfera ikertzen ari da Parisen, Meteorologia Dinamikoko laborategian, eta haren arduraduna artikulua egileetako bat da. Garateren esanean, garrantzitsua da, “topografiak atmosferan eragina duela erakusten baitu, eta, orain arte, ez zen halakorik espero”. Horrez gain, Garatek azaldu duenez, lana baliagarria izango da planetaren inertzia-momentua jakiteko, eta horrek aukera emango luke planetaren barneko egitura hobeto ezagutzeko. ●

Neandertalek sua pizten zutela iradokitzen duten aztarnak aurkitu dituzte

Neandertalek sua erabiltzen zutela frogatuta dagoen arren, [pizteko gai ote ziren](#) oso eztabaidatua izan da azken urteotan. Bada, gure espezieak egiten zuen bezalaxe, neandertalek ere harrizko tresnak erabiliz sua pizten zutela iradokitzen duten lehen aztarnen berri eman dute, Andrew Sorensen-ek (Liedengo Unibertsitatea, Herbehereak) eta kideek.

Sorensenen taldeak neandertalen suharrizko hainbat tresna aztertu dituzte, Musteriar aldiko 26 aurpegibiko, zehazki; eta mineral gogorren aurka kolpatuak izan zirenen arrastoak topatu dituzte, piritarekin kolpatzean gelditzen direnaren gisakoak. “Pirita kontserbatzea aztarnategietan nahiko zaila da, baina suharrizko tresnetan piritak utzitako arrastoak nahiko bereziak dira, Sorensenek aurreko lan batzuetan frogatu duenez”, azaldu du Joseba Rios Garaizar arkeologoak (CENIEH).



“Aurrerapauso bat da neandertalek sua pizten zutela frogatzeko, eta ziurrenik hurrengo urteetan antzeko adibideak agertuko dira nonahi”, dio Riosek. Bestalde, oraindik pirita-aztarnak topatzea faltako litzatekeela ohartarazi du. ●